

opusdei.org

Prelatuaren Gabonetako zorion- agurra

Mons Fernando Ocariz-en
mezua, Jesusen Jaiotzaren
ospakizuna dela eta

2020 Abe 17

Aurten, Gabonetako ospakizunak
kutsu berezia hartuko du, bizi dugun
munduko osasun larrialdiaren
ondorioz. Agian Belenera joango
gara, Familia Santuaren aurrean
kezka edo sufrimendu bereziren bat
jartzeko.

Jesus Haurra aterpean edo bere
Amaren besoetan ikusteak, mugez
betetako ingurune batean, baita
materialez ere, lagundu egiten digu
fedearen begiekin gertatzen den
guztia ikustera, jainkozko eta giza
zentzua antzematera, eta, era
berean, egoera honetan Jainkoak
norberagatik duen maitasuna
aurkitzera.

Jesus Haurrak bihotz aske batekin
bizitzera deitzen gaitu, lur honetako
gauzetatik askatuta, benetan
garrantzitsua dena ezagutzen dakien
bat izatera

Jar ditzagun asmo horiek San Joseren
esku, batez ere Aita Santuak deitu
berri duen Urte Santu honetan.

Nire bedeinkazio
maitagarrienarekin, Gabon
zoriontsuak opa dizkizuet.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
prelatuaren-gabonetako-zorion-agurra/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/prelatuaren-gabonetako-zorion-agurra/)
(2025 Abu 7)